

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

3830

AGINDUA, 2025eko abuztuaren 28koa, Hezkuntzako sailburuarena, Lehen Hezkuntzan unitateak gehitzeagatik Pasaia (Gipuzkoa) «Pasaia-Lezo Lizeoa» Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Pribatuari emandako baimena aldatzen duen 2025eko uztailaren 16ko Agindua aldatzeko dena.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.c) artikulua ezartzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak maila bereko xedapen baten bidez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira eta horiek zuzentzeak dokumentuaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzea ekar badezake.

Era horretako huts bat aurkitu da Hezkuntzako sailburuaren 2025eko uztailaren 16ko Agindua-ren testuan (2025eko abuztuaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 151. zk.). Agindu horren bidez Pasaia (Gipuzkoa) «Pasaia-Lezo Lizeoa» Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Pribatuari baimena aldatu zitzaion Lehen Hezkuntzako lehen zikloan hiru unitate gehitzeagatik. Hori dela eta, dagokion zuzenketa egiten da hemen:

2025/3522 (2/2) orrialdean, honela dio:

«– Batxilergoa: 6 unitate, bakoitza 30 ikaspostuko edukierakoa.

– Hezkuntza berezia: gela ireki 1.»

Baina honela esan behar du:

«– Batxilergoa: 6 unitate, bakoitza 35 ikaspostuko edukierakoa».

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abuztuaren 28a.

Hezkuntzako sailburua,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.